



2013KO OTSAILAREN 1EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko otsailaren batean, arratsaldeko ordu-bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratu-tako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Inazio Estensoro Eskisabel eta Andoitz Garmendia Zubeldia.

Haizea Mendia Iztueta zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkezten da 2013ko urtarrilaren 11an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2012ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 81 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA HOGETA HAMABOST MILA BERREHUN ETA LAUROGEI-TA HIRU EURO ETA HIRUROEGITA HEMEZORTZI ZENTIMO (135.283,78€)takoa eta 2013ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 1 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGETA HIRU MILA ZAZPIEHUN ETA LAU EURO ETA HIRUROGEITA ZORTZI ZENTIMO (23.704,68€)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 11-11-03 zbk.dun esped.: zerbitzua handitzea, astean 4 ordutik 6 ordura, osasun egoeran emandako aldaketagatik. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15 izango da.
- 247 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea 2013ko urtarrilaren 14an, laguntza pertsonalagatik ekonomi prestazioa jasotzen hasi delako.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 12-01-008 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 250€ ematea, 2012ko abendutik hasita. Ematen zaiona esakutakoaren %100 da.

- 12-01-009 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 250€ ematea, 2012ko abendutik hasita. Ematen zaiona esaktutakoaren %100 da.

IV.- 2 H.J.A. -IBABE-PINGON- GUNEKO 2.2 -AZKAR-, 2.3 -ARRUABARRENA 2- ETA 2.4 -IRIZAR- AZPIGUNEETAKO PLAN BEREZIAREN HASIERAKO ONARPENA.-

Ormak Construcción, S.L.U.k Santiago Peñalva eta Manu Arruabarrena arkitektoek eta Mikel Iriondo abogatuak idatzitako Lazkaoko Arau Subsidiarioen 2 H.J.A. -Ibabe-Pingon- Guneko 2.2 -Azkar-, 2.3 -Arruabarrena 2- Eta 2.4 -Irizar- Azpiguneetako Plan Berezia dokumentua aurkeztu dute udal honetan eta dokumentu hori izapidatu eta onartua izan dadin eskatzen du.

Honen aurrean, dagokion txosten teknikoak egin ondoren eta Hirigintza Batzorde Informatzailearen proposamenez, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartu ditu:

Lehena.- Lazkaoko Arau Subsidiarioen 2 H.J.A. -Ibabe-Pingon- Guneko 2.2 -Azkar-, 2.3 -Arruabarrena 2- Eta 2.4 -Irizar- Azpiguneetako Plan Bereziari hasierako onarpena ematea. Behin-betiko onarpenaren aurretik, bere inguruko txosten teknikoan jasotako zehaztapenak barneratu eta bategingo dituen dokumentua aurkeztu beharko da, hala nola, jendaurreko erakustaldian aurkeztu daitezkeen alegazioen onarpenetik ondorioztatutako aldaketak.

Bigarrena.- Dokumentua jendaurrean jartzea hogeit eguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralde historikoko zabalkunde handieneko egunkari edo egunkarietan argitaratuz eta ukitutako jabeei banakako jakinarazpena eginez.

Hirugarrena.- Txostenak eskatzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mugikortasun eta Bide Azpiegitura Departamenduari eta Eusko Jaurlaritzaren Ur Agentziari.

V.- 1 H.J.A. -C.A.F.- KO 1.1 J.I.E.KO URBANIZATZEKO JARDUKETA PROGRAMA .-

Alkatetza honek, 2012ko maiatzaren 29ko Ebazpen bidez, C.A.F. S.A. enpresak sustatu eta Manu Arruabarrena eta Santiago Peñalva arkitektoek, Endara Ingenieros Asociados S.L.k eta Mikel Iriondo abogatuak idatzitako Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 1 H.J.A.ren -C.A.F.- 1.1 Jarduketa Integratuaren Eremuko Urbanizatzeko Jarduketa Programa hasierako izaeraz onartzea eta jendaurreko erakustaldian jartzea ebatzi zuen.

Espedientea jendaurrean erakusgai 20 eguneko denboraldiz eduki ondoren, iragarkiak Udaletxeko iragarki ohelean eta 2012ko ekainaren 5eko 106 zbk.dun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, eta onarpena jarduketak eragindako ondasunen eta eskubi-deen titularrei jakinaraziz, epe horretan ez zen alegaziorik aurkeztu.

Guzti hau honela 1 H.J.A. -C.A.F.- ko 1.1 J.I.E.Ko Urbanizatzeko Jarduketa Programari behin betiko onarpena eman zitzaion 2012ko urriaren 12ko Tokiko Gobernu Batzarrean. Onarpen hau eman eta gero, hasierako onarpena ukitutako bi interesatari, jakinarazpena ez zitzaiela egin konturatuz, bi jakinarazpen horiek egin dira eta alegazioak aurkezteko epea igaro delarik hauek ez dute inolako alegaziorik aurkeztu.



Guzti hau honela, berriro aurkezten da behin betiko onarpenera Tokiko Gobernu Batzar honetara.

Honen aurrean Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, ondorengo akordioak hartzen ditu:

LEHENA.- Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 1 H.J.A.ren -C.A.F.- 1.1 Jarduketa Integratuaren Eremuko Urbanizatzeko Jarduketa Programa behin-betikoz onartzea, C.A.F. S.A. enpresak sustatu eta Endara Ingenieros Asociados S.L.ko Manu Arruabarrena eta Santiago Peñalba arkitektoek, eta Mikel Iriondo abokatuak idatzitakoa.

BIGARRENA.- Behin betiko onarpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta honekin batera baita edukien laburpena ere. Laburpen honek, gutxienez, Euskadiko Lurzorua eta Hirigintza arautzen duen ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 156 artikuluko 5. apartaduan adierazitakoak jaso beharko ditu.

VI.- 1 H.J.A. -C.A.F.-KO KONTZERTAZIO HITZARMENA.-

C.A.F., S.A.k enpresak Lazkaoko Arau Subsidiarioetako 1 H.J.A. -C.A.F.- gunearen kontzertazio hitzarmenaren proposamena aurkeztu zuen udal honetan bere onarpenerako.

Halaber C.A.F., S.A. enpresak hemeretzi mila hirurehun eta hogeita hamabi euro eta hogeita hamabi zentimoko (19.332,32€) abala aurkeztu du.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2012ko irailaren 14an egindako batzarraldian C.A.F. enpresa eta Lazkaoko Udal honen artean izenpetzekoa den kontzertazio hitzarmen hau jendeurrean jartzea erabaki zuen.

Iragarkia 2012ko urriaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta Jendaurrean egon den denboraldian ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Guzti honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, C.A.F., S.A.k enpresak aurkeztutako Lazkaoko Arau Subsidiarioetako 1 H.J.A. -C.A.F.- gunearen kontzertazio hitzarmenaren proposamena onartzea erabakitzen du.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta zazpi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

